



TAILERRA

Proiektuetan oinarrituriko ikasketa

Gaitasun orokorra:

**Testuinguruan txertatutako arazo /galdera batetik abiatuz;
errealitatera egokitutako eta bideragarria den erantzun kreatibo bat
sortzea**

Helburuak

Proiektu bat gauzatzean:

Egoera errealak aztertzerakoan antzematen diren arazoei aurre egiteko edo lortu nahi diren helburuak eskuratzeko behar diren ezagutzak barneratzea.

- Arazo desberdinei erantzun desberdinak integratzea, gaur egungo ikasketa aktiboa sustatuz.
- Ikasleria bere ikasketa prozesuan ardura hartuz, euren autonomia indartuz eta hartzeko gaitasunak garatuz, ikaskuntza pasiboa alde batera utzi ezagutzaren eraikitzailea izateko.
- Konexioak sortuz eta errealitate bakarraren ideia zalantzan jarriz, ibilbide bakoitzaren berezitasunak ulertu eta informazio ideien sintesia, esperientziak eta sormenerako baliabideak erabiliz, interpretazio eta ebaluaziozko integrazioa, erabakiak hartzeko ahalmena eta erlacionatutako gaitasunak bultzatu.

Eginkizuna:

Ezagupenak oinarritzat hartuta, zenbait adibide erakutsiko dira. Bakoitzak, proiektuaren lorpenaren bidean jartzeko, zeharkako gaitasunak eta ezagutzak pasibotik aktibora pasatzea.

saioa: “Zein ideia garatu nahi dugu? Interes-gaiaren definizioa eta sorkuntza”

Eginkizuna: Oinarrizko arazoa erabaki ondoren, tailerreko partaide guztien artean lehen bilaketa bat egingo da “Zer dakigu gai honi buruz?” galderari erantzunez.

Lehenengo galdera hau definitu eta gero hurrengo galderara pasatuko gara: “Zer jakin behar dugu?” (informazioa zertarako behar dugun, zein helbururako, etab.).

Eta azkenez “Non bilatu dezakegu informazioa?” galderaren inguruan hausnarketa bat egingo dugu iturri posibleen zerrenda eta aukeraketa eginez bai hasierako ezagutzak bai ordena eta interpretazio irizpideak zabaltzeko. Proiektuan lortu nahi ditugun helburuen zerrenda argia eta ordenatua egin eta gero informazio bilaketarekin hasiko da (TIC, liburutegiak, etab.). Informazio bilaketa kideen artean bananduko da pertsona bakoitzak zereginaren alde bat landuz. Gaiarekin lotuta agertzen diren kontzeptuak eta terminologia argituko da ere, proiektuaren **ulermena hobetzeko eta sakontzeko asmoz.**

saioa: “Erlazionaturiko erantzun artistikoak”

Eginkizuna: Talde handian, teoria mailan lortutako informazioa partekatuko da. Informazio berriak bilatzea: Zein da arazo honen ikus errepresentazioa? Talde txikietan, lantzen ari diren gaiaren ikus errepresentazioak bilatuko dituzte eremu desberdinetan: artean, publizitatean, karteletan, diseinuan, etab. Ikonoteka bat egiten hasiko dira.

saioa “Ondorioak eta proposamen kreatiboak”

Eginkizuna: Talde txikietan lortutako informazio guztiaren ondorioak aterako dira. Hauetan oinarrituz, egin ahal diren objektu plastikoei buruzko ideiak proposatu egingo dira.

saioa “Esperimentazioa eta sormen-berrikuntza”

Eginkizuna: Hurrengo saioan egingo den objektua sortzeko beharrezkoak diren esperimentazio edo zirriborro desberdinak egingo dira. Objektu hau

eskuratu dituzten ezagupen errepresentazioa izango da, hau da, planteatu den arazoaren soluzioa edo gaiarekiko proposamena.

saioa “Objektuaren sorkuntza”

Eginkizuna: Saio honetan objektuaren eraikuntza finala hasiko dugu. Aurrekoan egin diren zirriborro eta proposamenetan oinarrituz, material eta forma desberdinekin esperimentatuko dugu, ikusiz ea sortutako objektuak beste saioetan **planteatu diren helburu, ondorio, behar eta ezaugarriekin bat datorren.**